

# HURRENGO EGUNEKO PILULA

## LARRIALDIETAN BAINO EZ ERABILI EZ OHIKO ANTIKONTZEPTIBO MODUAN

**HORMONA-DOSI HANDIAK DITU, ETA EZ DA HORREN ERAGINKORRA**

### ZERTARAKO DA?

**Haurdun geratzeko arriskua gutxitu egiten du** babesik gabeko sexu-harreman baten ondoren (kon-doa apurtu egin denean, egunero hartu beharreko pilula antikonzeptiboa hartzea ahaztu zaizunean, ...).




### NON LOR DEZAKEZU?

Botiketan saltzen da, errezetarik gabe. Osasun-zentrora ere joan zaitezke.



### NOIZ HARTU BEHAR DUZU?




**LEHENBAILEHEN:** hobeto lehenbiziko 12 orduetan; edonola ere, babesik gabeko sexu-harremanaren ondorengo 72 orduen barruan. Pilularen eraginkortasuna urritu egiten da denborak aurrera egin ahala.

### NOLA FUNZIONATZEN DU?

Obulazioa gelditzen du, espermatozoideak obulua ernaltzea oztopatzen du, edo obulua umetokian ezartzea ekiditen.

**Haurdun geratuz gero, ez du haurdunaldia eteten, eta ez dio lesio-rik eragiten enbrioiari.**



### EZ BELDURTU ...



... baginatik odola botatzen baduzu, titietako edota buruko mina baduzu, edo botaka egiten baduzu. Botaka egiten baduzu pilula hartu eta hiru ordu baino lehen, beste pilula bat hartu beharko duzu. ... hilekoa aurreratu edo atzeratu egiten bazaizu. Gerta liteke. Aurreikusitako egunetik 7 egun baino gehiago atzeratzen bazaizu, osasun-zentrora joan. Tratamendu horrek ez du beti ekiditen haurdun geratzea.



Planifikatu zure ohiko metodo antikonzeptiboa, eta gogoan izan beti:  
**preserbatiboa da sexu-transmisiozko infekzioak saihesten dituen metodo antikonzeptibo bakarra.**



Informazio gehiago:  
[erabilera.orrian](http://erabilera.orrian)

# LA PÍLDORA DEL DÍA DESPUÉS

## ÚSALA SÓLO EN CASO DE EMERGENCIA NO COMO ANTICONCEPTIVO HABITUAL

 **TIENE DOSIS ALTAS DE HORMONAS Y ES MENOS EFICAZ**

### ¿PARA QUÉ ES?

**Disminuye el riesgo de quedarte embarazada** cuando has mantenido una relación sexual no protegida (el preservativo se ha roto, has olvidado tomar la pastilla anticonceptiva diaria,...).



### ¿DÓNDE LA PUEDES CONSEGUIR?

Se vende en **farmacias** sin receta.  
También puedes ir al Centro de Salud.



### ¿CUÁNDO LA TIENES QUE TOMAR?



**LO ANTES POSIBLE:**  
mejor dentro de las primeras 12 horas y, en todo caso, dentro de las 72 horas siguientes a la relación sexual no protegida.

La eficacia de la píldora va disminuyendo con el tiempo.

### ¿CÓMO FUNCIONA?

Frena la ovulación, dificulta la fecundación del óvulo por el espermatozoide o evita su implantación en el útero.

**En caso de estar ya embarazada, no interrumpe el embarazo y no produce lesiones en el embrión.**



### NO TE ASUSTES SI...



... **tienes sangrado vaginal, dolor de mamas y de cabeza, náuseas o vómitos.**  
Si vomitas antes de que hayan pasado 3 horas de la toma de la píldora, tendrás que tomar otra.  
... **la regla se adelanta o retrasa.** Puede pasar. Si se retrasa más de 7 días de la fecha prevista, acude a tu Centro de Salud. Este tratamiento no siempre evita el embarazo.

Planifica tu método anticonceptivo habitual y recuerda que...  
**el preservativo es el único método anticonceptivo que evita infecciones de transmisión sexual.**

Más información:  
[prospecto](#)